

Bizitzak erdigunean

*Covid-19aren krisiari eta neoliberalismo patriarkal eta kolonialari
aurre egiteko proposamenak*

2020eko apirilaren 9a



BIZITZAK ERDIGUNEAN

Euskal Herriko
Koordinadora Feminista



Aurkibidea

1. Testuingurua	2
2. Diagnostikoa: ezkutuko egoerak argitara ateratzen	8
2.1. Feminizatutako eta ikusezin bihurtutako eremu sozioekonomikoak:	
bizitzaren eguneroko zaintza	8
2.1.1 Zaintzaren konponbideak familietan	8
2.1.2. Ordaindutako zaintza-lanak	10
2.1.3. Feminizatutako beste lan batzuk	12
2.1. Indarkeriak: indarkeria matxista, arrazakeria.	17
2.2.1. Indarkeria matxista	17
2.2.2. Arrazakeria	17
2.3. Prekarizazioa, bizi-baldintzen degradazioa eta eskubideen urraketa	18
2.4. Burujabetza galtzea	21
3. Eskaerak eta exigentziak	22
3.1. Feminizatutako eta ikusezin bihurtutako eremu sozioekonomikoak:	
bizitzaren eguneroko zaintza	22
3.1.1. Familietako zaintzetarako konponbideak	22
3.1.2. Etxeko enplegua	23
3.1.3. Zaintzak eremu publikoan	24
3.1.4. Sexu-lana	26
3.1.5. Elikadura	27
3.2. Indarkeriak: indarkeria matxista, arrazista	28
3.2.1. Indarkeria matxista	28
3.2.2. Indarkeria arrazista	29
3.3. Lurraldeko-kidegoetako indarkeria	30
3.4 Bizitzaren degradazioa eta autonomiaren galera	31



Bizitzak erdigunean Covid-19aren krisiari eta neoliberalismo patriarkal eta kolonialari aurre egiteko proposamenak

Dosier hau eraikuntza kolektibo baten ondorioa da, hogei talde feminista baino gehiagoren eskutik informazioa biltzetik abiatuta. Beste eragile sozial eta sindikalen ekarpenak ere jaso ditugu, baina, hala eta guztiz ere, ondo dakigu ezinezkoa izan dela errealitate guzti-guztiak biltzea. Ildo horretan, dossier honek tresna baliagarria izan nahi du, halaber, ikusezin bihurtutako errealitateetan argia jartzeko, etorkizunean haiei heltzeko aukera izango dugularik.

Jarraian aurkituko dituzuen edukiak martxoaren 16az geroztik landu ziren, hau da, Espainiako Estatuan alarma-egoeraren dekretua indarrean hasi ondoko hiru lehen asteetan.

Eduki horiek gai jakin batzuetan zentratu dira, hain zuzen ere, ikuspegi feminista batetik bereziki nabarmendu beharreko gaiak landu nahi izan ditugu, agian beste eremu batzuetan alde batera uzten ari zirenak. Izan ere, gai horietan balio handiko ekarpena egin dezakegula uste dugu.

1. Testuingurua

Salbuespen-egoera honetan bi gauza nabarmendu dira bereziki, feminismoen ahotan aspalditik darabiltzagunak: bizitza krisian dagoela batetik, eta bizitza guztion artean zaindu behar dugula bestetik. Oso ideia soilak dira, baina indar handia dute aldi berean.

Susperraldiaz hitz egiten ziguten, baina guk argi genuen sakoneko krisi batean murgilduta geundela. Bizitza bera arriskuan zegoela esaten genuen behin eta berriz, planetaren bizitza eta jendearen bizitza, sistema kapitalista heteropatriarkal arrazistaren ondorioz.

Dirudienez, koronabirusarekin argi geratu da jokoan dagoena bizitza dela: bizitzarik gabe, ez dago ez produkzio-sistematik, ez ezer. Horrelakorik ikusi nahi ez zutenek ere ikusi dute orain. Bat-batean **agerian geratu da orain artean ezkutuan konpontzen zena**. Guk adi-adi egon nahi dugu, zer gertatzen den eta politikoki une honi nola heltzen zaion ikusteko, bi ideia nagusi gogoan:



- Ahaleginduko gara **jendearen bizitza bakoitzarekin zer gertatzen ari den** ulertzen. Eta sistemari gutxien axola zaizkion bizitza horiei arreta berezia eskainiko diegu. Zer gertatzen ari zaie etxeko emakume langileei, sexu-langileei, emakume* arrazializatu eta migratzaileei, indarkeria sufritzen duten emakume* eta neskei, etxerik ez duten emakumeei*, lgbqi jendeari, konfinatuta baino gehiago pilatuta bizi diren pertsonen?
- Eta zelatan egongo gara **bizitzari eusten dioten moduak nola berrantolatzen diren** ikusteko, ikusezin bihurtutako lanei arreta berezia eskainiz. Zer gertatzen ari da lanbide horiekin? Nola antolatzen da jendea etxean? Edo auzoan? Nork zer egiten du? Zer baldintzatan? Zeren arriskupean? Egitura kolektiboak (osasun-sistema, dependentziarekiko arreta...) indartzen edo ahultzen ari dira? Nork egiten du lan haietan eta zer baldintzatan?

Feminismoetatik aspalditik ari gara aldarrikatzen bizitza zaindu beharra dagoela. Egunero bizitzea ez da magiaren edo kasualitatearen arabera kontu bat. Bizitza egunero berreraikitzen dugulako bizi gara, **egunero-egunero pertsona guztien bizitza zaintzen dugulako alegia**. Pertsona guztiok kalteberak gara beti, ez bakarrik haurtzaroan edo zahartzaroan. Horregatik, denok gara koronabirusarekiko kalteberak. Eta azpimarratu nahi dugu, halaber, **elkarri ematea eta elkarrengandik jasotzea dela bizitza zaintzeko modu bakarra**. Gizarteak, ekonomiak, mundu osoak, interdependentzia-errealitate bat osatzen du. Eta ekodependentzia-errealitate bat ere bai, planeta bizigabe batean ezin izango ginatekeelako bizi.

Alabaina, indarrean dugun sistemak errealitate hori ukatzen du. Bizitza kolektiboa aintzat hartzen du bai, baina pertsona gutxi batzuei mesede egiteko xede bakarrarekin. **Sistema honek kapital-metaketa jartzen du erdigunean, eta sufritzen ari garen krisia horren zuzeneko ondorioa da**. Gauza bakarra bermatzeko moduan dago antolatuta: dirua esku pribatu gutxi batzuetan metatzeko.

Bestela esateko: **bizitza kolektiboari guztion artean eusteko modurik ez dugu**, baliabide komun gehien-gehienak kapital-metaketa zerbitzuan daudelako. Joan den hamarkadako "krisiaren aurkako" neurriekin argi ikusi genuen enpresa handien galerak sozializatu zirela. Bizitzaren arriskuak, aldiz, norberaren kontura geratu ziren, besterik ezean. Bizitzari eusteko egitura kolektiboak urriak dira, eta denborarekin argaldu egin dira gainera. Horren adierazgarri dugu, hain zuzen ere, osasuna edo zaharren egoitzak pribatizatu izana. Merkatua erdigunean jartzen da bizitza komuna antolatzeko garaian, eta lan-merkatuak zer langile mota eskatzen duen dugu horren erakusgarri argia: "txanpinoi-langileak" nahi ditu merkatuak, hau da, beren zaintza-premiak estalita edukitzeaz gainera, inoren gaineko erantzukizunik ez duten langileak, enpresarentzako erabateko prestasuna kolokan jar lezakeen ardurarik ez dutenak. Enpresen premiak dira gure bizi-denborak antolatzen dituztenak.



Eta nola biziraun dezakegu, bizitza erabili bai, baina kolektiboki babesten ez duen sistema honetan? Feminismoetatik behin eta berriz esaten ari gara **bizitzari ikusezinetik eusten zaiola**: ordaindu gabeko lana, etxeko enplegua, egoitzetako zaintzaileak, etxez etxeko langileak, garbitzaileak, osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako langileak ... Ezinbestekoak diren lan horiek emakumeen konturakoak dira nagusiki, eta emakumeen artean banatzen dira modu desorekatuan, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Hori gutxi balitz, baldintza prekarioetan egiten diren lanak dira gehienetan, ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanak alegia, eskubide eskasak edo eskubide bat ere ez daukatenak.

Horregatik, lehenago ere esan dugunez, orain ere esan nahi dugu indarrean dугun sistema kapitalista, heteropatriarkal eta arrazista hau **sistema biozida** bat dela, bizitza arriskuan jartzen duelako. Hori ez ezik, **sistema bidegabea eta desorekatua** ere bada: sistemarentzat, bizitza batzuek beste batzuek baino gehiago balio dutelako (merkatuetan ondoen kokatuta daudenek balio dute gehiago, hain zuzen), eta lanak banatzerakoan bidegabekeria delako nagusi, egoera okerreanean daudenek hartzen dutelako beren gain ikusezin bihurtutako lanen ardura.

Gaur, gainera, **sistema hori izugarri hauskorra** dela esan nahi dugu. Globalizazio neoliberalak egundoko konplexutasuna eta hiperkonexioa ekarri du berekin. Horrek, ordea, ez gaitu indartsuago egiten, ahulago baizik. **Bizitzari eusteko mekanismo kolektiboak globalizatu beharrean, bizitzaren kontura negozioa egiteko mekanismoak globalizatzen direlako**. Mendekotasun globala itzela da, eta fluxu global horiek enpresa handien mendean daude, burtsen eta bestelako mekanismo ultrakonplexuen agindupean, guk haien gainean zuzenean eragiteko inolako gaitasunik ez dugularik. Esaterako, mugak itxiz gero, elikagairik eta energiarik gabe geratzen gara, munduko beste muturrean ekoizten dena ari garelako kontsumitzen. Eta produzitzen jarraitzeko erabakiak ez direlako hartzen gauzak zenbateraino behar diren kontuan hartuta, errentagarri izaten jarraitu behar dutela kontuan hartuta baizik.

Beldur gara une hau ez ote den erabiliko shockaren doktrina bat aplikatu eta sistema sendotzeko. **Abian jar litezkeen zenbait prozesuri adi-adi jarraitu behar diegula** uste dugu, ondorio benetan penagarriak ekarriko lituzketelako berekin:

- **Negozio pribatuarentzat aukera berri bat izango da?** Lehendik gainbeheran zeuden enpresak “susper daitezten”? Negozio-nitxo berriak irekiko dira, edo zaharrak indartuko dira? Nori uzten zaio lanean jarraitzen, eta zergatik? Amazoneko banatzaileak irten daitezke, baina “manteroak” ez. Bertako elikagaien azokak ixten dira segurtasuna tarteko, baina supermerkatuak ez... Lehenagotik aurrera eraman nahi zituzten kaleratzeak gauzatzeko aprobeztatzeko dute momentua? **Baliabide komun eta publikoak esku pribatuetara desbideratzeko beste aukera baten atarian gaude?** Erreskate paketeetatik zenbat izango da enpresa handientzat eta zenbat jendearentzat? Ba al da sekulan ere galtzen ez duen jenderik?



- **Oraingo honetan ere bizitzari eusten dioten eskuak ezkutatuko dituzte, beste behin? Berriz ere arazoak etxera eramango ditugu,** eta bertan, hor konpon Mari Anton? Mediku eta polizia txalo egingo diegu? Edota txalo egingo diegu erizainei, ospitaleetako garbitzaileei, sukaldean dihardutenei, etxeko langileei, egoitzetako guztiei, kutxazainei, etxez etxe laguntzen dihardutenei? Gizonak ogiaren bila aterako dira, eta emakumeak, berriz, etxean, kozinatzeke eta garbitzeko lanetan?
- **Pobreziak eta desparekotasunek gora egingo al dute hemendik aurrera?** Babes sozialeko oso neurri sendorik ezean, desparekotasunek gora egingo dute, enpleguetan eta diru-sarrerak eskuratzean nabariko diren eragin desberdinen ondorioz. Baita konfinamenduaren baldintzen ondorioz ere: etxe txikiak (jende askorentzat, pilaketa hutsa), telelanerako edo urrutiko hezkuntzarako bitartekorik eza... Oinarritzko hornigaiak eta diru-sarrerak bermatzeko tresnarik ez badugu; konfinamendu-neurriak berdinak badira etxean lorategia dutenentzat eta patera-pisu batean bizi direnentzat; urrutiko hezkuntza abian jartzeagatik soilik, internet eta ordenagailuak denon eskura daudela ulertzen bada... Hori guztia gertatzen bada, desparekotasunak eta pobrezia areagotuko dira etengabe.
- **Egungo elikadura-antolaketa globalizatua sendotuko da une honetan?** Antolaketa hori eta antolaketaren zerbitzupeko nekazaritza-eredu produktiboa lurraren, naturaren, animalien eta pertsonen kaltetan doaz, eta tokian tokiko ekonomiak suntsitzen dituzte. Enpresa handiei lotutako janari kaltegarria bultzatuko al da, horrek kalte nabariak eragingo baditu ere, klase sozialaren arabera larriagoak edo arinagoak izango direnak?
- **Estatu zelatari eta zigortzailea indartuko al da prozesu honetan, estatu poliziala, militarizatua eta birzentralizatua,** lurraldeei eskumenak kendu eta Madrilen kontzentratuko dituen? Eta bestalde, zer izango ditugu, etxe nuklearrak, non bilduta bizi beharko dugun ezinbestean, etxeetan familia-giroko goxotasuna nagusi dela esaten badigute ere, guk, emakumeok, ondo asko dakigulako etxe horiek emakume eta nesken gaineko indarkeria sexistaz beterik daudela? **Ez da tarte bat ere izango estatu “sendoaren” eta etxe konfinatuen artean? Kaleak hustearen haritik zer etorriko da, komunaren eta publikoaren hustuketa?,** topaguneak hutsik geratzea? Zerekin beteko dira kaleak, balkoietako txalo solidarioekin edo balkoietako faxismoarekin?

Baikortasunetik begiratuta, ordea, erabateko norabide-aldaketa baten alde borrokatzeko une boteretsu batean gaudela pentsa dezakegu. Orain, behin ikus dugunean bizitza dela jokoan dagoena, bizitza guztion artean konpondu beharreko arazo bat dela ohartu garenean, bizitza (bizitza guztiak, beren aniztasunean) erdigunean jartzeko garaia dela pentsa dezakegu. Eta hori ez da esaldi huts bat, honako norabide hauetan aurrera egitea exijitzen digun esaldi bat baizik:



- **Sozialki beharrezkoak diren lanak berrantolatzen hasiko gara behingoz?** Aukera ezin hobea delako geldiezinak diren lanak zein diren galdetzeko (ospitaleak, adingabeen, adinekoen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta, elikadura, elektrizitate- eta ur-hornidura...). Une ezin egokiagoa da gure buruari galdetzeko lan horiek nork eta zer baldintzan egiten dituen, zer arriskupean diharduten eta haien lanaren kontura nor aberasten ari den. Bada garaia lan horiek bidezko balorazioa izan dezatela eskatzeko eta pertsona guztien artean bana daitezela exijitzeko, eta lanbide horiek irabazi-asmoaren gorabeheren eraginpean egon ez daitezen gure esku dagoen guztia egiteko. Ezinbestekoak badira, ezin dira esku pribatuetan utzi.
- **Egitura kolektiboak eraikiko al ditugu, bizitzari eusteko ardura beren gain hartuko dutenak?** Serioski hartuko al dugu premien gogobetetzea kolektibizatu eta desmerkantilizatzeko dugun betebeharra? Hasi gintezke, esate baterako, osasun pribatua publiko egiten. Autozaintzak sendo genitzake erakunde publikoen babesarekin, baina erakunde horien esplotazioa edo gutxiespena eraman beharrik gabe. Zer ekimen agertzen ari dira maila komunitarioan? Eta nork egiten du lan horietan? Klase sozial guztietako gizon-emakumeak era berean konprometitzen dira, arrazializatuak izan edo ez? Zer erabaki hartzen ari dira administrazioetan, jada pribatizatuta zegoena (egoitzak, etxeko laguntza, energia...) jabego komunera itzultzeko?
- **Elkarrekiko zaintza eta laguntzaren logika bat eraikitzearen alde egingo dugu?** Batzuek jarraituko al dute autosufizientzia-eredu bati jarraikiz jardunean, inoren laguntzaren premiarik ez dutela sinetsi nahian eta bizitzari eusteko behar ditugun zaintzak ezkutatzuz? Apurtuko al dugu behingoz emakumeoi oro har, eta emakume arrazializatupei eta langile-klasekoei bereziki, inposatzen diguten zaintza sakrifikatuaren agindua? Hasiko al gara bizitza guztiei balio bera ematen? Balkoietako faxismoari aurre egingo diogu? Arrazakeriari eta ijitoen aurkako joerei aurre egingo diegu?
- **Lortuko al dugu une honetan baliabide, lanbide eta denboren erabateko birbanaketari heltzea?** Dena kolokan dago une honetan, eta horregatik aukera egokia da horiek guztiak gutxien daukatenen artean birbanatzen hasteko. Esaterako, une egokia da mozkinak edo fakturazio-maila handiak dauzkaten enpresa handietan (eta ertainetan, enpresa ertainak ere oso handiak direlako) kaleratzeak debekatzeko, metatutako dirutzaren zati bat itzul dezaten. Une egokia da banku eta inbertsio-funtsen jabetzako etxebizitza hutsak desjabetu daitezela exijitzeko, eta etxerik ez dutenei ateak zabaltzeko, esaterako, lanik gabe geratutako etxeko langileei (internoei), manteroei, etab. Diru-sarrerak bermatzeko errentak onartzeko garaia da, fortuna eta enpresa handiei ezarritako zergekin ordainduta... Etxeetan lanak banatzeko garaia da: gizonak konfinatuta dauden honetan, busti daitezela eta lan egin dezatela...



- **Une honetan, ekonomia lurraldeetan sustraitzearen alde egingo al dugu?** Aukera ezin hobe da lurraldearekin lotura estuagoa duten zirkuitu ekonomiko laburrago eta xumeagoen alde egiten hasteko.
- Lanean ari diren Ekonomia Sozial Eraldatzaileko eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko sareak indartu eta sustatzeko garaia da.
- Elikadura-burujabetzaren eta energia-burujabetzaren alde egiteko garaia da. Eta hori guztia arrazoi askorengatik, besteak beste, urruneko tokietako gertaeren eta fluxu globaletan nagusi diren enpresa handietako interesen eraginpean ez egoteko. Burujabetza aldarrikatuko dugu beraz, lurralde-burujabetzaren aldarrikapenaren esparruan.
- **Familien barruko kutxa beltzak aztertuko ditugu?** Lau paretaren artean itxita egotea beste erremediorik ez dugun honetan, hitz egin dezagun hor barruan gertatzen denaz. Argitara atera ditzagun etxe barruan izaten diren indarkeriak, denborak banatzeko desparekotasunak, etxe batzuen eta besteen arteko desparekotasunak...
- **Giza bizitza eta natura zaintzen dituen nekazaritza-eilkagaien eredia sustatuko al dugu,** ikusezin bihurtutako emakumeek, inolako errekonozimendu eta eskubiderik gabe eta musu-truk lanean, mundu osoan barrena defendatu eta aurrera eraman duten eredia?
- Feminismoetatik gai horiei guztiei heldu nahi diegu. Horregatik sortu dugu dokumentu hau, egiten diren ekarpen guztiekin pixkana-pixkana aberastuko duguna. Unean-unean, egoeraren erradiografia egingo dugu, ezkutuan geratu ohi diren egoerak argitaratzen ahalegintzeko. Arian-arian sortzen diren ekimen kolektiboak bilduko ditugu. Eta aldarrikapen kolektiboak bateratuko ditugu, krisialdi hau (koronabirusarekin hasi ez dena!) beste mundu bat eraikitzeko baliagarri izan dadin lortzeko



2. Diagnostikoa: ezkutuko egoerak argitara ateratzen

Diagnostiko hau egin da informazioa biltzeko prozesu baten bitartez, non Euskal Herriko hainbat talde eta kolektibo feministak parte hartu duten. Jasotako ekarpen guztien sistematizazio moduko bat aurkeztuko dizuegu jarraian.

Ondo dakigu funtsezko hainbat errealitate eta gai diagnostiko honetatik (eta beraz, eskarieratik) kanpo geratu direla. Besteak beste: dibertsitate funtzionalarekin, TLGBQI bizipenekin eta haurtzaroko indarkeriarekin zerikusia duten egoerak. Hemendik gutxira horiei guztiei heltzeko aukera izatea espero dugu.

2.1. Feminizatutako eta ikusezin bihurtutako eremu sozioekonomikoak: bizitzaren eguneroko zaintza

Osasun-krisiaren haritik agerian geratzen ari da lehen ezkutuan zeuden hainbat lanek (ordainduak eta ordaindu gabeak) bizitzari eusteko funtsezko garrantzia dutela. Lan horiek oso feminizatuta daude, eta beste desparekotasun batzuekin (klase soziala, arrazializazioa, migrazio-estatusa eta adina) lotuta daude. Hori gutxi balitz, oso prekarizatuta daude.

2.1.1 Zaintzaren konponbideak familietan

Egungo egoera ez da baliagarri izaten ari familien barruko lanak birbanatzeko. Oraindik ere emakumeek beren gain hartzen dute guztiz neurrigabea den zati bat, zaintza-premiak areagotu diren honetan. Etxeko zaintzaren eta zuzeneko zaintzaren erantzukizunak ere areagotu dira. Eta, hori gutxi balitz, familiako pertsonen eta bizilagunen zaintza emozionala ere hor dago, baita gatazken kudeaketa ere, batzuetan bakegile moduan ere jardun behar dutelako.

Haur eta zaharren zaintza

Zentro publikoak itxi dira —haurtzaindegiak, eskolak, egoitzak—, eta, zaintza-lanak presakotzat jotzen badira ere, eremu informal eta pribatuen esku geratu dira ezinbestean, haiek kudeatzeko neurririk eta aukerarik ezean.

Horren adierazgarri dugu erakundeek ikastetxeak ixtearekin batera egin zuten deia: haurrak aitona-amonen zaintzapean geratzea, kontuan hartu gabe krisialdi honetara langainkarga handi batekin irisi direla, eta, horrez gain, birus honen aurrean arrisku-talde bat osatzen dutela. Horrek agerian uzten du lana eta familia bateratzeko eta zaintzetako politikak ez daudela gobernuen agendan.



Kasu batzuetan, diru-sarrera nahikoak dauzkaten familiak etxeko langileengana jotzen ari dira arazoa konpontzeko, hain zuzen ere, okerren ordainduta egonik egoera prekarizatuenean bizi diren pertsonengana. Hau da, herritar kalteberen edo prekarizatuenei zaintza-lanak egitea proposatzen zaie, haien osasuna arriskuan jarritz. Gainera, badakigu krisi-garaian zein diren etxeratzen diren lehenak, emakumeak noski, gure lan ikusezina ezinbestekoa delako zerbitzu publikoen gabeziei aurre egiteko. Litekeena da kutsatu kopuru handienetik oraindik oso urrun egotea, baina egoera pertsonal eta familiar jasangaitz ugari nabari dira dagoeneko. Guraso bakarreko familien kasuan, esaterako: demagun banandutako emakume migratzaile bat, hiru seme-alabaren ardura duena eta etxetik kanpo lan egiten duena, hiru haurrak etxean utzita, batek sukarra duela: Zer egin dezake? Eta zer gertatuko da sukarra duena ospitalera eraman behar badu? Zer egingo du beste hurrekin? Non dago haren zaintzarako eskubidea eta autozaintzarako ahalmena?

Bateko edo besteko gaixotasuna izaki, dependentzia handiko egoeran dauden pertsonen zaintza:

Zaharren egoitzak itxita daudenez, egoitzetako langileak dira haietan sartu eta haietatik irten daitezkeen bakarrak. Horren ondorioz, egoitzetan bizi direnak, gehienak emakumeak, familiakoen eguneroko bisitarik gabe geratu dira. Haiekiko harremana mantentzeko eta gure animoak eta babesa helarazteko eskatu bazaie ere, egoitza batzuetan inkomunikatuta jarraitzen dute. Egoiliar asko dementziak jota daude, eta egoera horretan oso zaila dute informazioa eta beren egoera emozionala kudeatzea.

Eguneko zentroak itxi dira, eta horrenbestez zaharrek edo gaitz fisiko edo mentalak dauzkatenek etxean geratu behar dute egun osoan, ezinbestean. Hortaz, nork hartu du pertsona horiek zaintzeko ardura? Lan hori ikusezina da. Alarma, beldur eta bakartzearen egoera nagusi den egun hauetan, gaixotasun psikiatrikoak dituztenen eta haiekin bizi direnen egoera bereziki kezkagarria da guretzat.

On-line lana: kontziliazioa edo lanaldi bikoitza?

Batetik, egunotan telelana guztion ahotan dabil, baina zer gertatuko da etxetik lan egiteko aukerarik ezean enplegua aldi baterako edo behin betiko galdu dutenekin? Bestetik, haur-eskolak eta ikastetxeak itxi izanaren ondorioz, haurrek etxean geratu behar izan dute, ezinbestean, eta gurasoek zaintzaile eta irakasleen rola hartu behar izan dute beren gain. Nolanahi ere, online lan egiteko eskatu zaie, eta haientzat zeharo ezezaguna den egoera batera egokitu beharrean daude, aldi berean. Nola moldatzen ari dira amak eta aitak, haurren zaintza eta enplegua bateragarri egiteko? Lanaldi bikoitz edo hirukoitzen bat inposatzen ari zaie agian?



Gainera, enpresak ez dira bermatzen ari telelanean nahitaezkoa den segurtasuna. Eta deskonexio digitalerako eskubideak indarra galtzen du egoera honetan; izan ere, telelana presako neurritzat jo da, oinarri-oinarrizko lanei eta zaintzei berehalako erantzuna emateko.

Duintasunez hiltzeko eta hiltzen laguntzeko eskubidea

Osasun-protokoloen esparruan, herritarrei ukatu egin zaie pertsona maitatuen ondoan egotea, heriotzaren unean. Batetik horrek irakurketa eskasa adierazten du bizitzaren eta haren zaintzaren gainean, gure ustez heriotza bizitzaren parte delako, eta, beraz, duintasunez bizitzeko eta hiltzeko eskubidea osotasun baten barruan ulertu behar dugulako.

Bestetik, heriotzaren ondoan maite ditugunen ondoan egoteko aukera izatea, edota, gutxienez, behin hil eta gero, haiei agur esan ahal izatea, segurtasun-neurriak errespetatuz betiere, pertsonen dolu-prozesuaren eta osasun emozionalaren parte dira.

2.1.2. Ordaindutako zaintza-lanak

Etxeko langileak

Etxeko langileen egoera bereziki kezkarria da krisialdi honetan, inolako babesik gabe geratu baitira. Emakume horiek dira, azken urte hauetan bereziki, egungo gizartearen zaintza-premien ardura neurri handi batean hartu dutenak eta hartzen dutenak, pertsonen arreta- eta zaintza-premiei erantzunez haien etxeetan, behar baino baliabide gutxiago dauzkan zaintza-sistema publiko eskasak bete ezin ditzakeenak betez. Orain etxeko langileak dira lanik gabe geratzen ari diren lehenak, oraindik langabezia-eskubidea onartua ez izateak dakarren zailtasun erantsiarekin. Gainera, migratutako langileentzat ez da beti erraza izaten prestazio sozialak (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta adibidez) jasotzeko betekizun zorrotzak betetzea. Horrenbestez, horrelako euskarririk gabe, erabateko kalteberatasunean geratzen dira.

Horrez gain, badakigu asko eta asko ezkutuko ekonomian dabilzala, eta administrazio-egoera irregularrean dauden hainbat emakume migratzailek dihardutela sektore horretan lanean. Haiek guztiak (gutxienez 200.000 estatuan, estatistika ofizialen arabera), prekarioenak hain zuzen, edozein neurritatik kanpo geratuko dira.

Bestetik, enplegu-emaileek lanera ez itzultzeko esan eta soldata eteten diete, eta horren harira gogora ekarri behar da kanpo-erregimenean diharduten langileen % 50ak zaharren zaintzan dihardutela. Beste hainbat emakumek, berriz, lanera joaten jarraitu behar dute, eta dagoeneko polizia hasi da haiei joan-etorrietarako ziurtagiria eskatzen. Eta, dokumentu hori eskura ez badute, isuna jaso dezakete. Askok ezkututako ekonomian dihardute edo egoera irregularrean daude, eta horregatik beldurrak airean daude, poliziak geldiarazi, paperak eskatu edo espedienteak ireki ditzakeelako, aurrerago beren administrazio-egoera erregularizatzeko oztopo izan daitekeena.



Horrez gain, etxeko langileak, kanpoko zein barneko erregimenean dihardutenak, oso kolektibo babesgabetua dira lan-osasunari dagokionez, beren segurtasuna berma lezakeen norbera babesteko ekipamendurik ez dutelako, eta egoera larrian egonagatik, horrelakorik jaso gabe jarraitzen dutelako. Horietako asko, gainera, gaixotzeko beldurrez bizi dira, langabeziarako edo beste edozein prestazio jasotzeko eskubiderik ez dutelako. Nork bermatuko du haien zaintza, edo, areago, haien biziraupena?

Prebentzio-neurriak dagokienez, eskudirutan ordaindu beharrean kreditu-txartela erabiltzea gomendatzen digute, baina ordainbide hori ez dago emakume langile askoren eskura.

Etxeko langileak (barnekoak)

Etxeetan barneko erregimenean lan egiten duten emakume langileei dagokienez, horietako gehien-gehienak (% 95etik gora) migratzaileak dira, eta hori gutxi balitz, haietatik asko egoera administratibo irregularrean daude. Ia denek zaintza-lanak egiten dituzte, etxeko lanez gainera. Emakume horien kasua are okerragoa dela esan dezakegu, lanik gabe, babes sozialik gabe eta etxebizitzarik gabe geratzen ari direlako aldi berean. Gainera, kontuan hartzekoa da askorentzat ezinezkoa dela atseden eta aisialdirako eskubidea baliatzea, konfinamendu-aginduz gainera, familia askok etxetik ateratzea debekatu dietelako kutsatuko ote diren beldurrez, kaleratuak izateko mehatxupean. Emakume batzuek salatzen dute bakarrik daudela, eta batzuetan dementzia edo dependentzia-maila desberdinak dauzkaten bi zaharren ardura ere hartu behar dutela, senideen aldetik laguntzarik eta bisitarik jaso gabe, horrenbestez, atseden hartzeko eskubidea urratzen zaielarik. Itxialdiak lan-karga handitzea suposatzen du emakume horientzat, eta, horrez gain, bakarrik egotea, askotan oso egoera txarrean dauden zaharrak zaintzeko erantzukizuna beren gain hartuta.

Eta horri erantsi behar zaio ordaindutako aparteko ordurik ere ez zaiela eskaintzen. Beste behin ere, "denetarako neskak" balira bezala tratatzen dituzte hainbatek. Eta berriz ere azpimarratuko nahi genuke barneko langileen % 98ak baino gehiagok dependentzia-egoeran dauden zaharrak zaintzeko ardura dutela.

Egoitzak eta eguneko zentroak

Koronabirusak gune jakin batzuetan eragin du bereziki; besteak beste, adinekoen eta dependentzia dutenen egoitzetan. Eta zenbait faktoreren bat-egitearen ondorioz gertatu da hori.

Osasun-krisiaren aurretik ere oso egoera txarrean zeuden egoitza horiek, eta langileek urte asko daramatzate mobilizazio-dinamiketan murgilduta eta grebak egiten, egoera hori salatzeko (esan gabe doa greba horiek bertan behera geratu direla, osasun-krisiaren ondorioz). Doako zerbitzu publiko eta unibertsala beharko lukeena azpikontratatuta dago, baldintza prekarioetan. Erreakzio soiletik prebentziora igarotzeko premia ikusten dugu. Hori gutxi balitz, egoitza horiek ez daude prestatuta osasun-krisi



bati erantzuteko, besteak beste, osasun-langile gutxi lan egiten dutelako bertan. Beraz, egoitza-eredu horrek ezin zion tamaina honetako krisialdi bati erantzun, inondik inora.

Urtetan metatutako gabeziek egoera kritiko batera eraman dute Zenbait egoitza kolapsatuta daude. Norbera babesteko ekipamendurik ez dago (maskarillak, eskularruak, mantalak, betaurrekoak), eta noiz iritsiko diren ere ez dakigu. Langile batzuei maskarillak alkoholez garbitzeko ere agindu diete, hurrengo egunean berriz ere erabiltzeko. Bestetik, egoitzak senideentzat itxi izanaren haritik zenbait ondorio nabarmendu dira, batetik, inpaktu emozional handiagoa adineko eta senideentzat, bisitak egiteko eta jasotzeko aukerarik ez dutelako; eta, bestetik, senideak joan ezin daitezkeenez, langileen lan-karga handitzen ari da nabarmen.

Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ)

Etxeko Laguntza Zerbitzuko emakume langileek salatzen dutenez, etxeko laguntza kudeatzen duten enpresak ez dira protokoloa betetzen ari, eta beraz, langileak inolako babesik gabe ari dira lanean, baita protokoloak indarrean daudenean ere. Esaterako, langileek hartu dute beren gain norbera babesteko ekipamenduak birziklatzeko ardura. Askotan langileak babesik gabe bertaratzen dira, toki batzuetan, zerbitzua murrizten ari da, eta pertsona kalteberak oso egoera txarrean geratzen ari dira. Langile asko baja hartzen ari dira estresaren eraginez, nahiz eta zerbitzuaren eskaria gainbehera dagoen, familia askok zerbitzuan baja ematea eskatu dutelako.

Oro har, krisialdia ondorio suntsigarriak eragiten ari da sektore horietan: kaleratzeak, segurtasun txikiaren kontratuetan bereziki; aldi baterako kontratuen eteteak, desinformazioa eta askotariko irregulartasunak. Hori guztia kontuan hartuta sektore horretan, ELZ lizitatzeko udalek antolatzen dituzten lehiaketak beheranzko enkante bihurtzen direla, non multizerbitzuetako enpresek ere parte har dezaketen.

2.1.3. Feminizatutako beste lan batzuk

Garbiketen sektorea

Errefortzurik eta babesik ez dagoela identifikatu da (norbera babesteko ekipamenduak, jarraibideak, materiala), baita lan-gehegikeria eta estresa ere. Administrazio publikoek azpikontratutako sektorea da neurri handi batean, eta administrazio horiek ez dute egoeraren jarraipena egiten; eta lagun lezakeen eskumeneko lan-agintaririk ere ez dago. Areago, azpikontrata laguntza publikoez aprobetxatzen ari dira, eta krisialdia erabiltzen ari dira irabaziak ateratzeko eta murrizketak egiteko (kaleratzeak aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetatik kanpo, ordu-aldaketak, geratzen diren langileei lan karga handitzea...).



Ez dugu ahaztu behar COVID19aren krisialdiaren aurretik administrazio publikoa zela sektorean prekarizazioa oro har, eta soldata-arrakala bereziki, sustatzen zuena, bulego, lokal eta eraikinetako emakume garbitzaileen artean adibidez, kale-garbitaketako langileek baino 6000 euro gutxiago irabazten baitute urtean.

Ospitaleetako garbiketak

Ospitale, osasun-zentro, anbulatorio eta egoitzetako garbitzaileek salatzen dutenez, ezin dute lanik egin pazienteak eta osasun-langileak babesteko behar adinako bermeekin. Azpikontratazioa nagusi da sektore honetan, eta langileek salatzen dute errefortzurik, babes-baliabiderik eta jarraibide argirik ez dutela, eta, horrenbestez, beren eta pazienteen bizitzak arriskupean daudela. Salatzen dute, halaber, lan-gehiagikeria eta estresa beren eguneroko lanaren kaltetan doazela. Behar diren garbiketa-lan guztiak egiteko astirik ez dute, eta materiala agortzen ari da. Bajak gorantz doaz, eta, horren ondorioz, lan-kargak ere bai. Txagorritxuko garbiketa-zerbitzua, adibidez, gainezka dago.

Supermerkatuetako langileak

Supermerkatu eta janari-dendetan lan egiten duten langileak babesik gabe daude, argi eta garbi. Salatzen dutenez, azken aste hauetako jende-oldeak direla-eta, babesik gabe geratu dira, beren lan-karga nabarmen igo den neurrian. Kutxazain gisa dihardutenek ez dute behar besteko osasun-babeseko neurririk, eta, hori gutxi balitz, jendearekiko harremanak estresagarriak dira, lo hartzeko zailtasunak eraginez eta beren osasun mentalaren kaltetan.

Saltoki handiak eta online salmenta sustatzen ari dira, saltoki txikien kaltetan. Zergak ordaintzeari ihes egiten dioten makroenpresak eta banaketa-kanalak (Amazon) irabazi handiak egiten ari dira, eta, horrekin batera, oinarritzko lege-eskubideak urratzen dituzte, ez dituztelako oinarritzko babes- eta segurtasun-neurriak bermatzen.

Telemarketina

Langile-pilaketa gertatzen ari da, oinarritzko prebentzio-neurririk ezarri gabe. Ez da oinarri-oinarritzko zerbitzu bat. Kutxabanken hileta-aseguruen salmenta suposatzen ari da lan-kargarik handiena.

Sexu-lana

Sexu-langileek salatzen dute babesik gabeko lan-egoera batean daudenez, ez dutela langabezia-prestazioak edo bestelako laguntzak jasotzeko eta lanean baja hartzeko eskubiderik, eta beraz inolako babesik gabe daude une honetan, sexu-langileak eta baita haietako askok ardurapean dauzkaten adingabeak ere. Lanik egiten ez badute kalean geratzen dira. Seguru al daude klubetan, pisuetan, kalean....edonon dihardutela ere? Gomendatutako higiene- eta segurtasun-neurriak betetzen ari al dira? Zer prestazio ekonomiko jaso ahal izango dute?



Landa-inguruneko produktore txikiak eta baserritarrak

Gaur egun, produktore txikiek eta baserritarrek zuzeneko salmentaren eta balio erantsiko produktu bat lantzearen alde egin behar dute, nekazaritza jasangarriaren bitartez; horixe da bizirik irauteko har dezaketen bide bakarra, produktore, enpresa eta banaketa-kate handien erabateko nagusitasunaren aurrean. Egoera honen ondorioz hartutako neurriek eragin negatiboa dute haien bizimoduetan. Neurri horien artean, honako bi hauek azpimarra daitezke: herri- eta toki-azokak itxi izana; saltoki handiei eta enpresa handiekin lotutako janari ez-osasungarriari mesede egitea; autokontsumo- eta autosufizientzia-alternatibak kentzea (pertsona batzuei debekatu egin zaie beren autokontsumo-baratzera joatea, baina ez supermerkatuetara joatea); adingabeek etxean itxita egon behar dutenez, baratzea etxean ez duten baserritarrei lanera joatea galarazten zaie (edo joateko denbora gutxiago dute), produkzioaren kaltetan.

2020ko apirilaren 6an, EAEn baserritarren azoka eta merkatuak debekatzeko agindua eman zen, nahiz eta, indarrean geratzen ziren gutxiek osasun- eta prebentzio-neurri guztiak hartuak zituzten, eta, horren ondorioz, baserritarrek kate handietara jotzea beste erremediorik ez dute produktuak saltzeko, kate horiek prezio eta baldintza duinik bermatzen ez badute ere. Gainera, oso baldintza murritzailak ezarri ditu agindu horrek, alarma-egoera amaitu ondorako. Hala eta guztiz ere, supermerkatuetan ez dira gutxieneko osasun-neurriak bermatzen.

Nabarmentzekoa da, halaber, hurbileko merkataritzan eta banaketan ez dela inolako neurririk hartu, segurtasun-neurriak (maskarillak, eskularruak...) inplementatzeko nabari den baliabiderik (ekonomikoak eta sarbidekoak) eza konpontzeko, eta horrenbestez, produktoreek eta kontsumo antolatuko elkarteek beren gain hartu behar dutela horren guztiaren kostua. Segurtasun-protokolorik eta dokumentazio espezifikorik ere ez dago, eta, horrenbestez, produktoreek ezin dute zuzeneko salmenta segurtasunez gauzatu, osasunaren eta legeriaren ikuspegitik.

Elikagaien produkzioak aurrera jarraitzen badu ere, produkzio askoren diru-sarrerek behera egin dute, merkatuak, jatetxeak, jangelak eta oro har ostalaritza itxi izanaren ondorioz (esaterako, Nafarroan arkumeen salmenta % 85 jaitsi da, ostalaritza itxi izanaren ondorioz). Elikadurarekin zerikusia duten enplegu asko galtzen ari dira, orain eta etorkizunari begira, eta esan beharra dago lan horietako asko emakumeen esku daudela (zuzeneko salmentan diharduten ustiategi txikiak, eskolako jangelak, garbitzaileak, etab.). Azkenik, aipatzekoa da, halaber, elikadura-burujabetzaren eta agroekologiaren eremuetan kolektiboen desmobilizazioa eta desmotibazioa nabari dela, ekintzarik eta harreman pertsonalik ezaren eta oso egoera pertsonal prekarioen ondorioz. Landa-munduan zaila da sare sozialetako aktibismoari eustea (arrakala teknologikoa).



Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen eremuak

Osasunarekin eta gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten lan gehienak emakumeen ardurapean daude. EAEn, adibidez, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan diharduten pertsonen % 75 emakumeak dira. Hortaz, emakumeak dira erakunde publikoetatik koronabirusak eragindako egoerari aurre egiten diotenak, eta hori modu ez-errepresiboei dagokienez, mota guztietako polizietan gizonezkoak direlako nagusi, argi eta garbi. Hori bai, gehienetan azpikontratatura dauden zerbitzuetan egiten dute, lan-baldintza prekario eta gero eta okerragoetan, kasu askotan. Une honetan oso baldintza prekariotan daude egoera larri honi aurre egiteko lanean, lanaldiak luzatzen zaizkielako, baliabide nahikorik ez dutelako eta osasuna arriskupean jartzen dutelako, ez bakarrik kutsatzeko aukerak direla-eta (ezinezkoa da segurtasun-tartea errespetatzea, eta babes-ekipamenduak urriak dira), baita egiten ari diren gainesfortzuaren eta eustearen ondorioz ere (lan-kargak gora egin du, modu esponentzialean). Horrek guztiak haien osasunean eragingo du, berehalakoan, eta osasun-larrialdia “gainditu” osten.

Hezkuntza.

Ikastetxeei ez zitzaion behar bezala informatu gertatzear zegoenaren inguruan, nahiz eta begi-bistakoa zen. Eta behin konfinamendua hasitakoan nola jardungo zen ere ez zen behar bezala planifikatu. Ikastetxeek ez zuten ikasleen errealitatearen gaineko diagnostikorik egin. Ez zitzaion zer gertatuko zen azaldu, zer esan behar zen zehazteko irizpiderik ez zen bateratu, askok oporretan zihoazela pentsatu zuten hasiera batean, eta ondoren konfinamenduari egin behar izan diote aurre, hainbatentzat etxean atxilotuta egotearen pareko egoera izanik. Osasun mentaleko arazoak areagotu egiten dira, etxean tratatu txarrak edo transfobia jasaten badute, edo bestelako indarkeria motak larriagotzen badira, eta ia ezinezkoa da haiengana iristea.

Lehenagotik ere arraza, klase edo migrazio-jatorriagatiko segregazioa handia bazen, orain muturrekoa da. Irakasleek beren teknologiekin erantzun behar izan dute, ezinbestean; hezkuntza-plataformak saturatu egin dira. Plataformak aldatzea beste erremediorik ez dugu izan, eta horrek ikasle askorentzat suposatu du beste funtzionamendu bat ikastea eta horretara egokitzea, egun gutxi batzuetan.

Ikastetxeak diziplina-erakunde bat izaki, ebaluazio-irizpideei eman zaie lehentasuna, eta haurrei gehiegizko lan-karga ezarri zaie, zer egoeratan dauden kontuan hartu gabe. Irakasleek lanaldi mugagabeak egin behar izan dituzte horri erantzuteko, beren kontratazioak mota batekoak ala bestekoak izanik ere.

Hainbat ikaslek ez dute wifirik, eta beste hainbatek jatekorik ere ez dute, beren otordu nagusia jangelakoa baitzen, erantzunak berandu iritsi dira. Paperik eta boligrafikorik ez duten haurrak ere badaude, eta denetik daukaten ikasleei eskatzen zaien emaitza bera eskatzen zaie.



BIZITZAK ERDIGUNEAN
Euskal Herriko
Koordinadora Feminista

Azterketak eta lanak eginarazi zaizkie, ikastetxean daudenean baino lan gehiago egiten ari dira orain. Hirugarren ebaluazioari eutsiko zaio, eta ebaluatu egingo zaie beren egoera kontuan hartu gabe.

Batxilergoan dauden ikasleek irakasleen laguntzarik gabe prestatu beharko dute selektibitatea, eta horrenbestez, unibertsitatean sartzeko bidea normalean zaila bada, are zailagoa izango da egoera honetan. Ebaluazio-irizpideak zein diren ez dakigu, eta irakasleak inprobisatzen ari dira aurrera egin ahala.

Lan-baldintzei dagokienez, irakasle funtzionario askok, bitarteko irakasleen aldean pribilegioak dauzkatenek, lanaldi murriztuak kentzeko baliatu dute konfinamendua, baja-egoeratik alta-egoerara pasatuz. Eta, horren, ondorioz, bitarteko hainbat eta hainbat irakasle lanik gabe geratu dira. Uda iristean ezin izango dute lanean jarraitu, eta irakasle asko muturreko egoera batean geratuko dira, langabezia agortu dutelako. Berriz ere azpimarratu behar da sektorean behin-behinekotasuneko tasak handiak direla (% 40), eta batez ere hezkuntzaren barruan merkantilizatuta dauden sektore prekarizatuen eta pribatizatuenetan, eskola-jangeletan adibidez, non behin-behinekotasuna % 70era iristen den.



2.1. Indarkeriak: indarkeria matxista, arrazakeria.

2.2.1. Indarkeria matxista

Koronabirusaren krisialdia hasi zenez geroztik 3 emakume erail dituzte Euskal Herrian. Batetik, indarkeria-egoerak bizi dituzten emakume askoren egoera larriagotu egin da, etxean 24 ordu daudelako erasotzaileekin itxita; horren ondorioz, tentsioa areagotu da, eta indarkeriaren intentsitateak eta mailak gora egingo dute. Bestetik, litekeena da bikote heterosexualen eremuan indarkeria-egoera argi batean ez zeuden emakumeak indarkeria sufritzen hastea, elkarbizitza areagotzearen ondorioz. Bakartzeak arrisku-egoera areagotzea ekarri du emakumeentzat, babes-neurriak murriztearekin eta **zerbitzuetara jotzeko zailtasunak handitzearekin** batera.

Bestetik, indarkeria matxistaren eraginez dibortziatutako bikoteen kasuan, aitek seme-alabak ikusteko eskubidea badute, orain zailagoa da bisitaldi horiek emakumeentzako segurtasun-baldintzetan egitea, topaguneak itxi direlako.

Arreta-zerbitzuetara iristea eta zerbitzu horiek jasotzea zaila da benetan, eta batzuetan ezinezkoa ere bai, zerbitzu horietara iristeko metodo presentzialak erabiltzen direlako, gizarte-laguntzaileekin elkartuz eta balorazio eta bideratzeen bitartez. Egoera honetan, mekanismo horiek guztiak ezin daitezke modu berean eskaini. Gainera, zerbitzuak ere presentzialki **ematen dira**, abokatu eta psikologiei bisitaldiak eginez eta abar, eta beraz, zerbitzuak ematea zailagoa da, eta batzuetan ezinezkoa.

Azkenik, nabarmentzekoa da familiaren eremuan ere indarkeria matxistak presentzia handia duela, are handiagoa konfinamendu-une honetan, esate baterako, neska gazteek eta txikiek beraiekin bizi diren beste senide batzuen eskutik sufritzen dituztenak, areago oraindik haiekin konfinatuta daudela aintzat hartuta.

2.2.2. Arrazakeria

Intersekzio jakin batzuetako taldeak dira krisialdiaren kolpea bereziki sufritzen ari direnak (arrazializatuak, pobreak, administrazio-egoera irregularrean daudenak). Batetik, "kanpotik datorren arriskuarekiko" beldurra hazi egin da, baita "hemengoak izan arren, betidanik gaitz guztien errudunak direnenganako" mespretxua handiagotu ere, ijito herriarekiko mespretxua adibidez. Ildo horretatik, txinatar edo ijitoen komunitateak jarri dira jomugan, komunikabideen bitartez bultzatutako estigmatizazioa eta arrazakeria areagotzeraino. Gainera, poliziaren arrazakeriatik salaketak areagotu egin dira azken aste hauetan. Bestetik, migratzaileak dira gizarte honetako lan prekarioenak egiten dituztenak eta okerren ordainduta daudenak, eta horrenbestez, zailtasun bereziak izango dituzte segurtasun-gabeziako, lan-eskubideen urraketako eta salbuespen ekonomikoko egoera honetan. Amaitzeko, nola bermatuko ditu gizarte honek paperik gabeko pertsonen osasun-premiak?



2.3. Prekarizazioa, bizi-baldintzen degradazioa eta eskubideen urraketa

Lan eskubideak oro har galtzea dakarren prozesu bati egin behar diogu aurre. Prekarizazioa, lan-araudiaren malgutasuna, kaleratzeak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak... Produkzioaren eremuan, birusa ez barreiatzeko neurriak berandu, gaizki eta estratuen arabera hartzen ari dira. Areago, krisi ekonomiko bat zuritzeko aitzaki ezin hobe prestatzeko ari dira, 2017tik nabarmentzen ari zen joerarekin bat etorriz.

Oro har esan dezakegu mota askotako irregulartasunak gertatzen ari direla laneko segurtasun eta osasunarekin zerikusia duen guztian, arrazoi psikosozialak barne: kaleratzeak, aldi baterako kontratuen eteteak, desinformazio orokorra, eta jarraipen-mekanismoak eza, eta/edo, kasu askotan, une honetan lagungarri izan litezkeen eskumeneko lan-agintaririk eza. Horrek guztiak eragin berezia du lanik ez duten pertsonengan, behin-behineko edo aldi baterako enplegua dutenengan, azpikontratatura daudenengan, etxeko langileengan, administrazio-egoera irregularrean daudenengan, bazterkeria- eta pobrezia-egoeran eta etxerik gabe daudenengan, etab.

- Kontraturik gabeko lan prekarioak, erreklamatzeko eskubiderik gabe, edo etxean gelditzeko erabakia hartu behar duten langileak, horren ondorioz soldata-galera sufritzen dutenak.
- Kaleratzeak —inolako eragozpenik gabe Gobernuaren aldetik—, enplegu-erregulazioko espedienteak eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, eta horrek esan nahi du pertsona askok ez dutela beren oinarritzko premiak (etxebizitzaren alokairua, elikagaiak, energia-gastuak, hezkuntza edo online lanetarako behar den teknologia) betetzeko diru-sarrerarik izango.
- Oinarritzko lanak egiten badituzte ere (garbiketak, dependentzia duten pertsonen zaintza ...), ezinbestean lan prekarioetan jardun behar duten langileak, segurtasun-neurriak gabe eta soldata eta lan-eskubide duinak gabe.
- Langile prekarioak (fabrika eta call centerretako lanpostuetan pilatuak), oinarri-oinarritzko lanak egiten ez dituztenak eta segurtasun-neurriak gabe lan egitea beste erremediorik ez dutenak, eta, telelanean aritzera behartuta egon arren, horretarako behar diren bitartekoak ez dituztenak.
- Saltoki handiak sustatu dira, eta autonomo eta saltoki txikiei, aldiz, ixteko agindu zaie. Eta, etxebizitza askotan, familiaren negozioa da diru-sarreraren iturri bakarra. Saltoki txikiek emakume-aurpegia dute.



BIZITZAK ERDIGUNEAN
Euskal Herriko
Koordinadora Feminista

- Gainera, eta “zaintzak” izeneko atalean azaldu dugunez, segurtasun-neurririk gabe lan egitera behartuta dauden emakume horietako askok dependentzia duten edo arriskuan dauden pertsonak dituzte ardurapean, eta horrek kutsatzeko arriskua handitzea dakar berekin. Gehienetan ez dute etxean gelditzeko aukerarik, nahiz eta legeak hori ezarri duen langileen estatutuan. Eskubide hori urratu egiten da, ordea, eta askotan opor-egunak hartzera behartzen zaie. Bajen kudeaketa oso konplikatu da. Esaterako, gaixotasun kronikoak dauzkaten hainbat pertsonak lanera joan behar izaten dute ezinbestean, ez dietelako baja ematen.

Neska* gazteen egoera salatzen dugu bereziki: haien lan prekario ugariak (adibidez, haurren zaintzan edo eskola partikularretan, askotan beltzean kobratuak) eten egin dira. Emakume langile askok ez dakite etorkizunean zer izango duten, jangeletako langileek, adibidez.

Sistema publikoaren degradazioa

Prestazio sozialak: larrialdi-egoera Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten emakumeentzat, langabeentzat, pentsiodunentzat eta langile prekarioentzat, lana izan arren, hilabetea amaitzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarria kobratu behar dutenak. Une honetan, gizarte-prestazio horiek jasotzeko kudeaketak geldituta edo etenda daude egoera berezi hau dela-eta, baina guraso bakarreko familiek, bananduek edo alargunek ezin izango dute normaltasuna itzuli arte itxaron beren oinarritzko premiak betetzeko, etxebizitza edo elikadura adibidez. Ezin izango dute dirua “aurreratu” prestazio horien tramitazioa bideratu arte. Gainera, prestazioak jasotzen dituzten familia gehienek adingabeak dituzte ardurapean.

Bestetik Lanbide eskari telematikoetara jotzen ari da, kontuan hartu gabe horrek hartzaileentzat zer suposatzen duen; izan ere, tramitazioa azkartzea eta espedienteak ebaztea behar dute lehenbailehen, egoera dramatikoak saihestearren. Pertsona guztiak ezin dira bide telematikoetan sartu (sarerako konexiorik ez dutelako edo arrakala digitala tarteko), eta, beraz, gizarte-bazterkeriako egoerak sortzen dira.

Osasun publikoa: ahulduta dago murrizketa eta pribatizazioen ondorioz, eta kolapsatuta dago une honetan. Gaixotasun kronikoak dituzten hainbat pertsonari tratamenduak atzeratzen ari zaizkie, eta beraz, osasunerako eskubidea ukatzen ari zaie.

Beste eremu batzuetan, hala nola etxebizitza, energia-pobrezia, elikadura... Koarentenako edo konfinamenduko neurriak ez dira era berean bizitzen abiapuntuko baldintza edo diru-sarreraren arabera. Ez dira era berean bizitzen bakartze-egoera etxebizitza txiki eta ilunetan pilatuta, osasungarritasun-baldintza eskasetan eta elikadura txar batekin eraman behar duzunean. Eta milaka etxetako errealitatea hori da.



Espetxeak:

Senideen bisitaldiak galarazi dira, askotan presoek kanpo-errealitatearekiko duten lotura bakarra bada ere. Hortaz, koarentenak dirauen bitartean, emakume preso askok espetxeko funtzionarioekin bakarrik izango dute harremana. Horrek ondorio emozional handiak ekar ditzake berekin, emakume presoentzat bereziki, bakartze bikoitza bizi dutela kontuan hartuta. Gainera, prebentzio- eta segurtasun-neurriak ez daude bermatuta. Funtzionario eta presoen artean kutsatzeak izan dira, eta hala ere neurriak hartu gabe jarraitzen dute. Kartzela-geletan itxitako 3 urteko haurrak ere badaude, osasun-laguntzarik eta segurtasun-neurririk ez dutenak sukarra eta sintomak dituzten arren.

Atzerritarrak Barneratzeko Zentroei (CIE) dagokienez, zentro horietan barneratutako migratzaileek uste dute ez dutela "gizaki" gisa merezi duten tratua jasotzen, eta koronabirusaz kutsatzeko arriskupean daudela salatzen dute. Diotenez, pertsona batzuek sintomak dituzten arren, ez zaie "azterketa medikorik" egin kutsatuta dauden edo ez jakiteko, eta "analgésikoak" baino ez dizkiete ematen. Gainera, Zentroan diharduten langileen joan-etorriak eta bakartze-neurririk eza salatzen dute, geletan 4-6 pertsona bitarte biltzen direla eta patiora irteteko orduetan 100 pertsonatik gora elkartzeko direla kontuan hartuta.

Zentro horietan barneratzeko kautelazko neurriaren xede bakarra da pertsonak non dauden jakitea, kanporatu aurretik. Alabaina, mugak ixtea izan da covid19 birusaren pandemia hedatu izanaren ondorioetako bat. Hainbat erakunde barneratuta dauden pertsona guztiak askatzeko eskatzen ari dira, dagoeneko ezinezkoa delako pertsona horiek kanporatzea. Barne Arazoetako Ministerioa hasi da Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetan dauden pertsonak askatzen, "kasuan kasu" aztertu eta barneratu bakoitzaren gorabeheren eta jatorrizko herrialdeetara itzultzeko aukeren "balorazio indibidualizatua" egin ondoren. Oraingoz, Espainian atzerritarrak barneratzeko dauden 7 zentroetatik, polizia nazionalak Bartzelonako CIE Zona franca zentroko pertsona guztiak askatu ditu.

Etixerik gabeko pertsonen egoera

"Gizarte honen bazterretan bizi garenok ez gaude etxean, etxerik ez dugulako, eta batzuek aterpetxerik ere ez dugu. Hortaz, guretzat ez da erraza izango osasun-neurriak zorrotz betetzea. Hori gutxi ez, eta poliziak identifikatzeko eskatzen digu kalean, eta isuna jartzeko mehatxua egiten digute konfinamendu-agindua betetzen ez badugu (isunak 1.500 € dira, gutxi gorabehera). Non egingo dugu lo? Aterpetxeek ordutegi zorrotzak dituzte (21:00 - 9:00), eta askok kalean bizi behar dugu ezinbestean, aterpetxean plazarik ez dugunez gero. Zer egin dezakegu egunean zehar? Aste barruan egiten ditugun ikastaro guztiak bertan behera geratu dira, eta egunean zehar hirian erabiltzen ditugun gainerako ekipamendu guztiak ere itxi egin dira. Eskuragarri dauzkagun zerbitzuak ez dira nahikoak, eta arazo handiak dauzkagu gure oinarri-oinarriko premiak betetzeko. Koronabirusa dela-eta zenbait jangela eta gune itxi dira, eta beraz, ematen diguten segurtasuna eta beroa galdu dugu; horrenbestez, egunero



ematen diguten janari-poltsa kalean jan behar dugu, ezinbestean. " Modhararen komunikatua.

Emakume askok abusu eta erasoak sufritzen dituzte aterpetxe mistoetan, baina etxerik gabeko emakumeentzat soilik diren guneak ixten ari dira. Zer gune seguru izango dituzte hemendik aurrera?

2.4. Burujabetza galtzea

Gobernu zentralak bere joera zentralista eta autoritarioa areagotu du

Bereziki Hego Euskal Herrian, Espainiako estatuaren lehen neurria izan da Estatua zentralizatzea eta autonomia-erkidegoak zuen gobernantza-ahalmen urria kentzea. Joera zentralista horrek auzo, herri eta komunitateen eragina gutxiagotzen du, eta bizitza erdigunean jartzea ahalbidetuko luketen antolaketa-ereduak bultzatzeko aukera oztopatzen.

Espazio publikoaren erabilera

Kontsumoa eta produkzioa dira kalean egoteko aitzaki bakarrak, hau da, espazio publikoaren erabilera komertziala. Internet erabiltzeko aukerarik ez duten pertsonak zeharo bakartuta daude. Non geratzen da kalera osasunaren eta ongizate fisiko-mental emozionalaren mesedetan ateratzeko aukera?

Indar polizial eta militarren gorakada, kontrol soziala

Krisialdiaren aurrean ahalduzko indibiduala eta kolektiboa sustatu beharrean, sistema publikoa sendotzeko bidean sakondu beharrean, kontrol sozialaren errezeta zaharra inposatzen ari dira beste behin, indar polizial eta militarren presentzia areagotuz. Zigorraren eta mehatxuaren logikak erabiltzen ari dira, egoeraren erantzukizuna zeharo indibidualizatuz. Hala, beldurra eta errua barreiatzen ari dira, eta segurtasunik ezaren eta antsietate kolektiboaren sentrazioak areagotzen. Hori jendearen ongizate emozionalaren kaltetan doa.

Polizia ugari mobilizatu dituzte kalean jendearen nondik norakoak kontrolatzeko; enpresetako jarduera, aldiz, ez dute inondik inora kontrolatzen.

Euskal Herriko Ipar-Hegoko mugaren itxiera

Mugen itxiera eta militarizazioa migratzaile eta errefuxiatuengan sorrarazten ari den ondorioez gainera (ikus ezpetxeei eta Atzerritarrak Barneratzeko Zentroei buruzko puntua), Frantziako eta Espainiako estatuaren arteko muga ixtea zuzeneko neurri bat ere bada, mugan bizi diren komunitateen errealitateen aurka doana. Izan ere, mugan bizi diren iparraldeko eta hegoaldeko herri askoren arteko harreman ekonomikoa, soziala eta kulturala ukalezina da, eta, neurri horien eraginez, egunero mugaz bi aldeetara diharduten pertsonen bizitza gehiago prekarizatzen da (lana telematikoki egiterik ez dutenak ezin dira lanera joan, zaindu behar duten horrengana iritsi ezinean dabilta, etab.).



3. Eskaerak eta exijentziak

3.1. Feminizatutako eta ikusezin bihurtutako eremu sozioekonomikoak: bizitzaren eguneroko zaintza

3.1.1. Familietako zaintzetarako konponbideak

- Aurreikuspenen arabera koronabirusaren krisialdiarekin eta/edo haren inpaktuekin lotutako gaiak ikertzeko baliatuko diren partida bereziek, gutxienez, honako gai hauek bil ditzatela bermatzea: denboraren erabilera konfinamendu-denboran eta konfinamendua aaitzean; eta familietan zaintzen gaineko konponbideak berrantolatzea.
- EUSTATEk konfinamendu-garaiko denboraren erabilerei buruzko ikerketa bat egitea, egoeraren bereizgarrietara eta larrialdira egokitutako metodologia bati jarraikiz eta gaian adituak diren feministen laguntzarekin.
- Familietako lanaren sexu-banaketaren gaineko kritika egin beharra azpimarratzea. Zehazkiago, mezu hau azpimarratu behar da: familiako kide guztiak etxean daudela aprobetxatuz, momentu hau aukera egokia da ordaindu gabeko lanek bidezko birbanaketarantzko bidean aurrera egiteko, eta ahalegin berezi bat behar da gizonen baterako erantzukizuna urratzeko: emakumeak ogiaren bila joan daitezela, eta gizonak, berriz, etxean fregatzen gera daitezela.
- Familietan lan-kargeri dagokienez gertatu ohi diren egoerak erakustea eta nabarmentzea, lan eta zaintzen banaketa horiek gauza daitezen.
- Guraso bakarreko familiei, dependentzia-egoeran dauden pertsonen eta bakarrik eta baliabiderik gabe dauden adinekoei dagokienez: dispositibo espezifikoak aktibatzea, esaterako, etxez etxeko zaintza publikoa lanpostuetara joan beharrean egonik familia-sare eskuragarri ez dutenentzat.
- Jardunean jarraitzen duten edo telelanean diharduten sektoreen lanaldia, oro har, 21-25 ordura murriztea. Eta bereziki, ardurapean adingabeak edo depedentzia duten pertsonak dituzten langileentzat.
- Herritarren sareak: Euskal Herriko hainbat udalerritan abian jarritako auzo-laguntzarako sareekin koordina daitezke dispositibo espezifiko horiek. Baina sare horiek laguntza eta baliabide publikoak eduki behar dituzte eskura.
- Arreta-telefono espezifiko bat aktibatzea, adinekoek eta dependentzia-egoeran dauden pertsonak orientatzeko eta haiei laguntza psikosoziala emateko.
- Biztanleko errenta txikiena duten auzoetan hornidura erregularra eta normalizatua bermatzea, auzokoen erosahaltenaren arabeko hornidura desorekatua saihestuz.
- Oinarritzko produktuen prezioa kontrolatzea, banatzaile handien monopolizazioak eta/edo espekulazioak eragindako garestitzeak saihestuz.



- Etxerik ez dutenei bizi-baldintza duinak bermatzea: babesarekin, elikadurarekin eta medikazioarekin zerikusia duten neurriak hartuz; eguneko zentroak gaituz aterpetxeetan bizi direnentzat, eta pisuak etxerik ez dutenentzat; etxerik ez duten emakumeei arreta berezia eskainiz.
- Ospitaleratutako pertsona maitatuen ondoan egoteko mekanismoak gaitzea, areago oraindik zaintza aringarrien kasuan.
- Erraustu baino lehen, hildako pertsona maitatuei agur esateko aukera ematea.

3.1.2. Etxeko enplegua

- Erregimen orokorrean langileentzat dekretatu edo dekretatzen diren prestazioak Etxeko eta Zaintzetako Langileei ere aplikatzea, Sistema Berezian. Etxeko eta zaintzetako langile guztiak aparteko babes-neurrietan txertatzea, haien lan-egoera erregularra izan edo ez, gainerako langileen baldintza berberetan.
- Langabeziagatiko prestazioa BEREHALA onartzea, eta atzera egiteko aukera ezeztatzea, kaleratze librea saihestearren.
- Ezkutuko ekonomian diharduten pertsona guztien erregularizazioa.
- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean berehala integratzea. Emakume horiei zaintza-lana garatzeko babes-ekipamendu egokia ematea, osasun-langileek bezala, kutsatzeko arrisku handiena dutelako.
- Barnekoen erregimenaren gaineko kontrol-neurriak, konfinamenduaren ondorioz lanpostuetan itxita gera ez daitezen.
- Etxeko eta zaintzetako langileek ere Gizarte Segurantzaz kotizatzen dutela aintzat hartuta, gainerako herritarrek bezala, adingabeak zaintzeagatiko baja eskatzeko eta zerga-salbuespenak jasotzeko aukera izan dezatela, koronabirusak bereziki kaltetutako herritarrak diren heinean.
- Etxebizitza bera eta etxebizitza bat edukitzeko aukera izanik etxeko eta zaintzetako langile askok aurre egin beharreko oztopo nagusietako bat, bat egiten dugu hainbat kolektibo sozialek alokairuen moratoria eskatzeko sustatutako ekimenarekin .
- Garraio publikoa erabiltzeko murrizketak ezartzen badira, joan-etorrietarako doako baliabide alternatiboak jarri behar dira. Onartezina da lanera joateko taxiak ordaindu behar izatea.
- Lan-bitartekotzako eta webgune plataformetako enpresen (ABLEak) abusuzko jardunbideak zaintzea eta geldiaraztea; izan ere, zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzte % 50eko deskontuarekin, eta horrek zaintzaileen soldatak txikiagotzea dakar.
- Etxeko eta zaintzetako langileak zaindu eta babesteko neurrien eta abusu-kasuetan salatzeko mekanismoen zabalkunde instituzionala (ikusi Indarkeria izeneko atala).



- Osasun-krisiaren ondorioz lanean kaltetutako langileentzat gizarte-segurantzako kuota etetea, kaleratzeak edo soldata-murrizketa saihesteko, betiere kontratuak bermatzen badira.

3.1.3. Zaintzak eremu publikoan

- Gizartearentzat ezinbesteko lanak direla aintzat hartuta, abian jarritako ekimenek bi ardatzetan aurrera egin dezatela eskatzen dugu:
 1. Ekonomia osoan duten garrantzia handitzea, lanpostu berriak sortuz.
 2. Lanbide horiek birbalorizatzea, merkatuan duten balioa bat etor dadin bizitzari eusteko egiten duten ekarpenarekin, lan-prekarizazioa saihestuz eta klaseko, generoko, arrazializazioko eta migrazio-estatusko ardatzen arabera segmentazio horizontala eta bertikala alde batera utziz. Plantillak handitu behar dira eta zerbitzuak indartu, une hau aprobeztatuz pribatizatutako zerbitzuak publiko bihurtzeko eta lan-baldintzak hobetzeko. Horrez gain, pandemia-egoeran arriskugarritasun-plusak ordaindu behar dira.
- Neurri horiek, pixkana-pixkana, kalitatezko zaintza-zerbitzuen sare bat eratzen dutela bermatzea, etorkizunean Dependentsiaren Arretarako Euskal Sistema Publikoaren/Zaintzen Euskal Sistema Publikoaren oinarriak ezartzeko ahalmenarekin.
- Osasuneko krisi-egoera amaitzen denean, lan-eremuan hartutako neurrien inpaktuari buruzko azterlan bat egitea, feminizatutako eta zaintzetako sektoreei arreta berezia eskainiz, enpleguaren eta desenpleguaren bolumenean eta lan-baldintzetan izandako aldaketak eta krisialdiaren inpaktu psikosozialak neurtuz

Egoitzak, etxeko laguntza eta eguneko zentroak

- Euskal Herriko gehiengo sindikalariekin bat egiten dugu egoitzetako langileen errebindikazio guztiekin, ratioei, soldadari, lan-eskubideei, baliabideei, langileei eta denborari dagokienez. Eguneko zentro eta egoitzetako langile kopurua handitzea.
- Gizarte zerbitzuen eta etxeko laguntzako langileen eskura, lan-segurtasuneko baldintzetan lan egiteko behar dituzten tresnak jartzea. Presaz eta berehala, kutsatzeak saihesteko behar den materiala bermatzea. Hartutako neurriak Etxeko Zaintzako Sistema Publiko bat eratze bidean doazela bermatzea, sistema hori etorkizunean Dependentsiaren Arretarako Euskal Sistema publikoan integratzeko modukoa.
- Bisitaldiak jasotzerik ez duten aldiari egoiliarren eta familien arteko komunikazioa bermatzeko baliabide teknologikoak.
- Erresistentzia-kutxak sortzea zaintzen eremuan modu informalean enplegatuta egonik baliabiderik jaso ez duten emakumeentzat, erakundeen edo sareen bitartez.



- Gizarte-langile, hezitzaile eta psikologoentzako plantilla indartzea, eta haien eskura baliabideak jartzea, adingabeentzako zentroetan, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetan, gaixotasun mentala duten pertsonentzako pisuetan eta antzekoetan arreta eta laguntza egokia eskaintzeko moduan egon daitezen.
- Emakume langile soziosanitarioentzat hotel-plazak gaitzea horrelakorik eskatzen badute, haien senideak kutsatzeko arriskua saihesteko.

Hezkuntza.

- Ikastetxe eta irakasleak baliabideez hornitzea, lanean baldintza ezin hobeetan jarduteko aukera izan dezaten. Eskola-aurrekontuak wifi sareak eta lan-materialak ziurtatzeko baliatzea, ikasleentzako baldintza egokietan. Eta material horiek haiei segurtasunez helaraztea, eta ez poliziaren bitartez.
- Plataforma digitalak badabiltzala ziurtatzea, eta haietan sartzeko bidea erraztea. Plataforma horiekin lan egiteak ikaskuntza-prozesu erantsi bat suposatzen duela kontuan hartzea.
- Ikasleek bizirauteko gutxieneko baldintzak bermatuta dauzkatela bermatzea.
- Laguntza psikologikoko baliabideak sortzea osasun mentaleko arazoak dauzkaten ikasleentzat, edota antsietate zein konfinamendu- eta estres-egoeratik eratorritako bestelako arazoak dituztenentzat. Ikasleen psikiatrizazioa eta gainmedikazioa saihestea. Ikasleen ongizatea zaintzea.
- Arrazako, klaseko, migrazio-jatorriko, sexu-orientazioko, genero-nortasuneko edo bestelako arrazoiengatik muturreko segregazioa espezifikoki saihestea. Familien barruko indarkeria, tratatu txarrak eta sexu-abusuak kontrolatzea.
- Ebaluazioak etetea, eta, beharrezkoa bada, ikasle batzuek errepikatu behar ote duten edo ez adostea lege-tutoreekin.
- Hurrengo ikasturteak egokitzea, kontuan hartuta aurten ezinezkoa gertatu dela curriculum normaltasunez betetzea.
- Lanaldi murriztua zuten eta orain lanaldi hori luzatu duten irakasleak lehengo egoerara itzul daitezela behartzea, eta bidegabeki kaleratutako irakasle guztiei lana ematea. Irakasleek oporrak kobratzea ditzatela ziurtatzea, nahiz eta gutxieneko egun kopurua bete ez, baldin eta lan-iruzur hori jasan badute.
- Irakasgaiak birplanteatzea, irizpideak bateratzea ikasleen ongizateari lehentasuna emanez irakasgai bakoitzaren aurreko errendimenduaren gainetik, eta, etorkizunean, merkatu-logikaren aurrean moldatzeko gai izan daitezen. Garrantzitsua da ikasleek ordutegi batzuk edukitzea, ongi lo egitea, beren orduetan jatea... eta familiak dira hori



BIZITZAK ERDIGUNEAN
Euskal Herriko
Koordinadora Feminista

berma dezaketen bakarrak. Ikasteko ez ezik, beste gauza batzuetarako denbora ere eduki behar dute.

- Ikasleentzako gutxieneko elkargune eta topaguneak zehaztea, betiere elkarrengandik gutxieneko tarteak gordez, eta aire zabalean ibiltzeko eta ariketa egiteko bidea erraztuz.

3.1.4. Sexu-lana

- Prostituzioan diharduten emakumeen kalteberatasun-egoera biltzea Koronabirusaren krisiaren aurka onartutako neurri ekonomiko eta sozialen barruan.
- Prostituzioan diharduten emakume migratzaileen administrazio-egoera irregularra erregularizatzea, izan ere hartutako zenbait neurritatik kanpo geratu baitira. Konpainia hornitzaileei debekatu egin zaie krisialdi honetan ordainagiriari aurre egiteko modurik ez duten familiei ura, argia eta gasa etetea, baina emakume horiek ez dute neurri horien babesik izango.
- Konfinamenduak irauteen duen bitartean, ostatua eta oinarritzko hornigaien ordainketa bermatzea tokiko larrialdi-neurrien bitartez, pisu eta logelen alokairua, elikagaiak, garbitzeko eta higieneko produktuak, eta Covid-19ari aurre egiteko materiala ordaintzeko aukera izan dezaten.
- Emakume migratzaileei eta egoera prekarioenean dauden besteei laguntzeko funts ekonomiko bat sortzea.
- Urgentziazko laguntza psikosozialeko zerbitzu bat sortzea familietatik urrun, sare sozialik edo familiarrik gabe, prostituzio-etxe edo pisuetan konfinatuta dauden emakumeentzat.
- Besteak beste, droga-kontsumoaren prebentzioari, kalteak murrizteko moduari, genero-indarkeriari edo GIBari buruzko informazioa emateko baliabideak sortzea, app aplikazioen bitartez.
- Seme-alabak dauzkaten emakumeentzat, elikadura eta higieneko oinarritzko premiak betetzeko baliabideak bermatzea, baita hezkuntza-alorreko laguntza eta errefortzua bermatzea ere, eskolak online jarraitzeko baliabide teknologikorik ez duten adingabeentzat.



3.1.5. Elikadura

Herri-jangelak

- Euskal Herriko lurralde osoan herri-jangelak irekitzea: ez soilik etxerik ez dutenentzat, kalteberatasun-egoeran bizi diren herritar guztientzat baizik: haurrak (ikastetxeak itxi izanaren ondorioz); baliabiderik gabeko pertsona eta familiak; bakarrik dauden zaharrak; baliabiderik ez duten guraso bakarreko familiak, etab.
- Elikadura osasungarria dela ziurtatzea, eta, ahal den neurrian, tokiko eta sasoiko produktuak erabiliz, baserritarren produkzio txikiari dagokionez proposatutako neurriekiko sinergiak ezarri. Segurtasun-baldintzak bermatzerik ez dagoenean, formula alternatiboak bilatzea, hala nola otorduak banatzeko zentroak edo etxez etxeko otordu-zerbitzuak.

Eredu agroindustrialak

- Supermerkatuetan diharduten langileen lan-segurtasuna bermatzea (kutxazainak, apal-hornitzaileak, garbitzaileak, etab.): COVID19aren aurkako babes eta baliabide higieniko eta ekonomikoak hornitzea; langile kopurua handitzea; lan-orduak murriztea lan-estresari aurre eginez; eta zaintza-lana bateragarri egiteko mekanismoak bermatzea.
- Supermerkatu eta saltoki handietako erosketen sustapena saihestea.
- “Jai egunetan denok jai” kanpaina balioan jartzea, non langile, saltzaile eta kontsumitzaileek bat egin duten igande eta jaiegunetan saltokiek ireki ez dezatela aldarrikatzeko, eta, horrez gain, kontsumo-eredua eta saltokietako lan-baldintzak zalantzan jartzeko.

Landa-inguruneke produktore txikiak

- Bertako produktuak erosteko deia egitea, kontuan hartuta tokiko elikadura-sistema osasungarri bati eustea inoiz baino beharrezkoagoa dugula orain, nola ekonomiarentzat hala osasunarentzat.
- Osakidetzan bermatzen den bezala, segurtasun-neurriak inplementatzeko behar diren materialak ematea (maskarillak, eskularruak, gelak, poltsak...), produktore edo kontsumo-elkarte txikientzat zailagoa delako material horiek aurkitu eta ordaintzea.
- Baserritarrei garraiatzeko eta produktua arazorik gabe entregatzeko eskumena emango dien ziurtagiri bat definitzea, haien egoera edozein izanik ere (autonomoak, altan egon edo ez; kontratatatuak, kontsumo-elkarteetako boluntarioak...).
- Ustategietako titularrak ez diren baserritarrekin zer gertatzen ari den aztertzea, eta ukatzen ari zaizkien eskubideak identifikatzea.



- Nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako egoera bereziak aztertzea (oinarri-oinarrizko jarduera dutelako itxi ez badute ere, diru-sarreretan beherakada nabaria duten langile autonomoak, besteak beste, sare-konpontzaileak, arrantzaleak ateratzen ez direnez lanik ez baitute, edota elikagai-merkatuetan saltzen duten baserritarrak), eta konponbide espezifikoak ematea.
- Elikagaiak alferrik ez galtzeko ekimenak bultzatzea (jendaurrean eta kolektiboki saltzeko antolatu ezin daitekeen jenero hori guztia catering enpresek eros dezakete edo elikagaien bankuen esku utz liteke, izoztu daitekeena izotz daiteke, elikagai galkorren eraldaketa bultza daiteke...). Euskal Herrian ekimen horiei guztiei lehentasuna ematea, inportazioko produktuak erosi beharrean.
- Autokontsumo-baratzeetan jarduteko aukera baimentzea.
- Landa-eremuan eta tokiko elikadurari loturik (ustiategi txikiak, eskoletako jangelak, etab) nabari den enplegu-galeraren aurrean erantzun espezifikoak ematea.
- Emakumeei baratzera haurtxoekin joateko baimena ematea, betiere segurtasun-neurriak betetzen badituzte.

3.2. Indarkeriak: indarkeria matxista, arrazista

3.2.1. Indarkeria matxista

- Erakundearteko languneak aktibatzea, zerbitzuak Covid-19aren egoerara modu koordinatuan egokitzen direla ziurtatzeko.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak egokitzea baliabide telefonikoen bitartez, txat telefonikoen bitartez adibidez, emakumeei arreta eskaini ahal izateko; oro har, arreta-zerbitzuetan sartzeko mekanismoak egokitzea konfinatuta dauden emakumeentzat.
- Jarraipenak egiteko mekanismoak aktibatzea honako hauek tartean dauden kasuetarako:
 - Babes-aginduak,
 - Gurasoek adingabeak bisitatzeko eskubidea, indarkeria matxistako kasuetan
- Emakumeen jarraipen eta laguntzarako mekanismoak aktibatzea, indarkeria matxistako egoerak egiaztatu direnean.
- Indarkeria-kasuen kopuruak gora egin dezakeenez edo zerbitzuen eskarian ere gorakada bat gerta daitekeenez, behin konfinamendua amaiturik, harrera-zentroetako plaza kopurua hazi beharko da, eta harrera-zentro horiek baliabideez hornitu beharko dira, bertako langile eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.



BIZITZAK ERDIGUNEAN
Euskal Herriko
Koordinadora Feminista

- Arreta psikologiko eta juridikoko zerbitzuak konfinamendu-egoerara egokitzea, baliabide telefoniko, txat telefoniko edo bestelako metodoen bitartez.
- Emakume guztiei arreta bermatzea, bereziki mendekotasun ekonomikoko edo irregulartasuneko egoeretan daudenei.
- Oro har, aurreikustekoa da konfinamendua amaitzean emakumeei arreta handiagoa eskaini beharko zaiela, erasotzaileekiko bizikidetz-egoeretan (bikoteak, seme-alabak...) metatutako egonezinaren ondorioz.
- Behin konfinamendu-egoera amaiturik, azterlanak sortzea, konfinamendu-egoeran indarkeria matxista nola gauzatu den jakiteko, eta emakumeengan eremu guztietan (bikotea, lana, etab.) izan duen inpaktuaren berri izateko. Aldi berean, konfinamenduan zehar indarkeria matxistak garatu dituen modu berriak identifikatzea, konfinamenduaren kalteak agerian jartzeko eta arretarako eta konponbiderako mekanismo egokiak aktibatzeke.
- Auzoetan, eraso matxisten aurrean erreakzionatzeko dekalogoak sortzea.
- Auzoetan, interpelazio komunitarioa eraso eta indarkeria sexisten aurrean (kazeroladak, salaketa-kanpainak sare sozialetan, bandera feministak)

3.2.2. Indarkeria arrazista

- Administrazio-egoera irregularrean dauden migratzaile guztiak erregularizatzea
- Pertsona migratzaile eta arrazializatuen eskura telefono bat jartzea, zenbait hizkuntzatan, lege- eta gizarte-gaiei buruzko informazioa eta aholkularitza emateko eta laguntza psikosoziala eskaintzeko.
- Koronabirusaren inguruko krisiari lotutako oinarritzko zerbitzuen gainean informatzeko eta prebenitzeko materiala egitea eta zabaltzea, gure inguruko hedapen handieneko hizkuntzetan: errumaniera, arabiera, frantsesa eta ingelesa. Gobernuaren jarraibide, osasun-gomendio eta gaitutako baliabide komunitario guztien itzulpena bermatzea.
- Poliziaren errepresio eta identifikazio arrazista bertan behera uztea pertsona migratzaile eta arrazializatuak bizi diren auzoetan.
- Arrazakeriaren ondoriozko abusu polizial guztiak biltzea eta ikertzea. Gertaerak frogatzen direnean, dagozkion erantzukizunak argitzea.
- Beste lurralde batzuetan COVID-19ak kaltetutako senideak dituzten pertsonak aberriatzea, doan.
- Batzorde espezifiko bat sortzea aplikatutako neurrien jarraipena egin dezan, arrazagatiko diskriminazioa saihesteko helburuarekin. Arrazakeriaren aurkako kolektibo eta erakundeekin aldi-aldi hitz egin beharko du batzorde horrek.



- Gorroto-delituen fiskaltzek ofizioz jarduten dutela bermatzea, zenbait komunikabide eta ordezkari politikok diskurtso arrazistak zabaltzen dituztenean.
- Tramite administratiboei dagokienez, tramite burokratiko guztiak telematikoki egiteko aukera bermatzea, eta zehazki:
 - Atzerriartasun-hitzorduak bermatzeko mekanismo telematikoak gaitzea,
 - Udalek erroldatzea telematikoki egiteko aukera erraztea.
- Administrazio-egoera irregularrean egonik etxeko eta zaintzako lanetan diharduten emakume migratzaileei dagokienez, erroldatze-ekimen bat abian jartzea herritarren sarearen bitartez, "zaindu ninduzunez, erroldatu egingo zaitut" lelopean.
- Osasuneko babes-neurriak bermatzea osasun-krisi honetan landan lanean jarraituko duten pertsonentzat, kontuan hartuta haietako asko kalteberatasun-egoera berezian daudela administrazio-egoera irregularrean daudenez gero.
- Bakarrik emigratzen duten haur eta gazteei dagokienez, inoren laguntza ez duten adingabeen babesa harrerako pisu edo zentroetan bermatzeko behar diren baliabideak jartzea, hutsik dauden etxebizitzak desjabetuz. Beren hezkuntzarekin aurrera jarraitzeko aukera bermatzea, online prestakuntzarako materialak haien eskura jarritz horrelakorik ez badute, edota eskolak egokituz.

3.3. Lurraldeko-kidegoetako indarkeria

- Autonomiaren etenaldia kentzea.
- Espainiako armada kaleetatik ateratzea.
- Abusu polizialak:
 - Sakoneko ikerketak indarkeria polizialeko kasu guztietan, bereziki indarkeria arrazista eta matxista gurutzatzen direnean, prestakuntza feminista duten erakunde independenteen eskutik.
- Indarkeria estatuen arteko mugetan:
 - Atzerritarrak Barneratzek Zentroetan osasungarritasunik gabe eta bakartuta dauden pertsona guztiak askatzea eta haien eskura bizitegi-baliabideak jartzea.
 - Laguntza espezifikoak Frantziako estatuarekiko muga itxi izanaren ondorioz lanera edo senideak zaintzera joaterik ez duten pertsonentzat edo bakartuta geratu direnentzat.
- Espainiako eta Frantziako estatuetako espetxeetan preso dauden emakumeak:
 - Baliabideak jartzea preso dauden pertsonen bisitaldiak jasotzeko aukera izan dezaten, haien eskura segurtasun-material egokia jarritz.



BIZITZAK ERDIGUNEAN
Euskal Herriko
Koordinadora Feminista

- Bisitaldiak ezinezkoak direnean, bideodeien erabilera ahalbidetzea, preso horiek beren pertsona maitatuekin harremanetan egoteko aukera izan dezaten.
- Osasun-laguntza eta mota guztietako laguntza emakume presoentzat, eta, hala badagokio, ardurapean dituzten adingabeentzat eta espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden gainerako pertsonentzat.
- Amak diren presoek beren seme-alabekin harremanetan egoteko aukera bermatzea.
- Sakabanaketa-legea desagerraraztea.

3.4 Bizitzaren degradazioa eta autonomiaren galera

Oro har, bat egiten dugu:

- Bizitzaren prekarizazio orokorreko eta desparekotasun ekonomikoak handitzeko prozesua geldiarazi nahi duten aldarrikapenekin, besteak beste: oinarritzko hornigaiak (ura, argia eta gasa) bermatzea, eta ez ordaintzeagatiko hornigai-mozketarik ez izatea; alokairuaren eta hipotekaren ordainketa barkatzea partikularren kasuan, eta etetea inbertsio-funtsen kasuan; etxegabetzeak geldiaraztea; Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsona guztiek alarma-egoeran prestazio horri jasotzen jarraitzea, eta dokumentazioa aurkezterik ez duten eskatzaileei onartzea.
- Lan-prekarizazioko prozesua eta osasun-krisiaren egoera lan-baldintzak degradatzeko aitzakia gisa erabiltzeko ekimena geldiarazi nahi duten aldarrikapenak; nola neurriak (jarraipena eta zigorra) betetzen direla bermatzeko aldarrikapenak, hala babesa zabaltzen dutenak (besteak beste, aldi baterako langileen kaleratzeak baliogabetzea, atzeraeraginez).
- Laguntza espezifikoak neurriak langile autonomoentzat (autonomoen kuota ordaintzeko moratoria, ordainketetan berandutzeagatiko mota guztietako errekaruak ezeztatzea...), kalez kaleko salmentan eta antzekoetan dihardutenak barne (gutxieneko errenta bermatua).
- Ekonomia Sozial Eraldatzaileari eta Ekonomia Sozial Solidarioari espezifikoak laguntzeko neurriak.



BIZITZAK ERDIGUNEAN
Euskal Herriko
Koordinadora Feminista

Bizitza, bizitza duina, eta, beraz, autogobernatua, ahalbidetzen duen guztia neutralizatzen, pribatizatzen eta prekarizatzen duen nekropolitika neoliberal eta patriarkalaren aurrean, presako eta egiturazko neurriak eskatzen ditugu. Besteak beste, honako neurri hauek proposatzen ditugu ildo horretan:

- Espainiako estatuko lurralde-krisiari, herrien autodeterminazio eta burujabetzatik heltzea, lurraldeen eskura horretarako mekanismo demokratikoak jarritz;
- Sozietateen eta kapitalaren errenten gaineko zerga igotzea;
- Berehala, aurrekontu sozial batzuk egitea, arrazakeriaren eta patriarkatuaren aurkakoak;
- Osasun pribatuaren eta beste zerbitzu pribatizatu batzuen nazionalizazioa edo publikazioa (ez aldi baterakoa), botere publikoek instalazio horiek guztiak kontrolatzea, herritar guztiei zerbitzua emateko;

Autogobernu eta burujabetzarako estrategietan sakontzea haien dimentsio guztietan, besteak beste, elikaduraren, energiaren eta teknologiaren alorretan.